



Piszinako belardian
gainean hartzen nau debalde; uretatik itzuleran
lehortzen nau alderik alde. **Zer da?**




ARITZ LOIOA / FOKU

Urpean dantzan


ZORION AGURRAK



Gure **Joanes** bihurritxoak 4 urte gaur! Ipuinetako txerri txo, otso, antxume eta bestelakoen ZORIONAK, eta **horrenbeste maite zaitugun guztion** muxu eta laztanez betetako tren luuuuzea zuretzat. ZORIONAK, JOANES!!



Zorionak, **Xabi!** 5 urte!




Zorion agurrak

argitaratu ahal izateko, gogoan izan mezuak astearte arratsaldea baino lehen jaso behar ditugula. Asteartetik aurrera jasotzen diren mezu guztiak hurrengo asteko zenbakian argitaratuko ditugu.



Intza (11 urte) eta **Ilargi** (7 urte). Gure bi sorgin poxpolinak: arin egiten zarete handi! Maite zaituztegu! **Aita eta ama.**



Zorionak, **Nora!** Aurten 4 urte! Muxu handi bat **Peru, amatxo, aitatxo eta maite zaitugun guztion partez!**



ZU ERE ARTISTA

Haitz Lerma



Beñat Gandiaga



Graxi Zabaleta



Kaixo, MANTANGORRIFEN lagunok! Zer moduz? Konturatzerako, ekaina iritsi da, eta uda ate joka daukagu! Animo, laster oporretan izango zarete eta! Guk, berriz, zuek bidalitako hainbat marrazki erakusteko aprobetxatuko dugu. Begira zein marrazki ederrak egin dituzten gure lagunek, margoak astinduta! Eskerrik asko bidaltzeagatik!

Izei Apaolaza



Alaine eta Intza Sedano Etxebeste

Narora Bayon





ERREPORTAJEA



Igeriketa artistikoa



● Neska talde bat
● Etxebarriko kiroldegian,
igeriketa artistikoa egiten.
ARGAZKIAK: ARITZ LOIOLA / FOKU

Musikaren erritmoan

Ikusgarria bada ere, kirol ezezaguna da igeriketa artistikoa. Euskal Herrian ere egiten da, ordea: Etxebarriko kiroldegian, adibidez, 60 neskato aritzen dira. Gaitasun ugari lantzen dituzte, entrenatzaileen arabera: malgutasuna, indarra, erresistentzia, biriken gaitasuna...

Besoak tolestuz eta mugituz, koreografia moduko bat egiten ari da neska talde bat Etxebarriko (Bizkaia) kiroldegian kanpoaldean. Tiktokeko dantza batdela dirudi, baina ez da

hala: kamiseta gorriak eta motxilak daramatzate soinean, eta Uribarri-Etxebarriko igeriketa artistikoko taldekideak dira. Urpean hankekin egiten duten koreografia besoekin erreparatzen ari dira.

2010ean sortu zen igeriketa artistikoko taldea. Ordura arte, kirol-

degiko ekintza puntual bat izaten zen, tarteka egiten zena. Handik denbora batera, ordea, guraso talde bat elkartu zen, kirol talde pribatu gisa taldea sortzeko. 60 neska inguru daude izena emanda gaur egun, 6 urtetik hasi eta 21 urtekoetara arte. Gazteenak lau or-

duz entrenatzen dira astean, eta, helduenak, berriz, hamazazpi.

Taldekideetako bi dira Enara Sot eta Malen Arza. 12 urte ditu lehenak, eta 7 zituenean probatu zuen kirola: «Igeriketa eta balleta egiten nituen. Biak asko gustatzen zitzaizkidan, eta, igeriketa artistikoa bien arteko nahasketa denez, probatu egin nuen». Arza, berriz, 9 urterekin hasi zen: «Proba egin nuen, Malenek gomendatu zidalako, eta asko gustatu zitzaidan». Ordu askoz entrenatu behar bada ere, ez zaizkie luzeak egiten, oso ondo pasatzen dutelako.

Gaitasun ugari lantzeko aukera ematen du kirolak Yrama Simarro eta Maider Garcia entrenatzaileen arabera. «Malgutasuna, indarra, erresistentzia, biriken gaitasun handia, azkartasuna...», esan du Si-



marrok. Dena den, oinarri bat behar dute horretarako, eta, batzuk oso gazte hasten direnez, igeri egiten irakastea izaten dute lehenengo zeregina. Gerora, kontaktzen irakasten dietela azaldu du Garciak: «Guk musika kontaktzen dugulako, besteak beste. Erritmo bakoitzak zenbaki bat dauka, eta oinarrizkoa erakusten diegu lehenik».

Kirol ikusgarria da kanpotik ikusteko: oso ondo koordinatu behar dira, urpean, erritmo bera eraman eta mugimendu berak egiteko. Horregatik da beharrezkoa hainbeste

entrenatzea: «Gurasoek, batzuetan, galdetzen digute: 'baina, hainbeste ordu, zertarako?'. Hanka luzatuta edukitzeko soilik, ordu askoz entrenatu behar da». Dena den, modu progresiboan egiten dute: ez dira kolpetik hasten hamazazpi ordu entrenatzen astean.

Uretara salto

Astearte bateko 17:30ak dira, eta hasi dute bi neska taldek entrenamendua, igerilekuko bi kale soilik hartuta. Aste honetan, gainera,

tzen dute, gero makila, eta azkenik, musikarekin soilik egiten dute.

Igerilekuaren kanpoaldean dago oraindik beste taldea, gazteagoena. Estera gainean ariketak egiten ari dira, Simarrokekin: luzaketak, etzanda daudela hankak zabaldu eta itxi, besoak eta hankak lurrean jarriz zubi moduko bat osatu... «Lehenik eta behin, lehorrean ikasten da: egiten den mugimendu bakoitzak zenbaki bat dauka, eta uretan hankekin egin behar duten guztia lehorrean eskuekin egiten dute», esan du Simarrok. Gerora egiten dute uretara salto, eta makilaren kolpeei jarraiki hasi dira koreografia egiten haiek ere.

Baina erraza ote da zortzi edo hamar pertsona koordinatzea? «Helduak direnean, bai. Txikiagoekin gehiago kostatzen da [barrez]. Ez dutelako irauten ur azpian, edo ez dakitelako kontaktzen, badaude belarririk ez dutenak ere...», esan du Marrerok. Horregatik da garrantzitsua ahalik eta azkarrena hastea: «12 urterekin ematen badute izena, hobetuko dute zerbait, baina maila jakin batera iristea zaila da. Kirol honetan, 16 urterekin, ia-ia erretiroa hartzen duzu».

Ekainaren 17an jokatu dute Zornotzan (Bizkaia) Euskal Herriko igeriketa artistikoko txapelketa. Triste daude, 10 urtekoei ez diete-lako parte hartzen utzi, adingabeak babesteko legea dela eta. Lehiaketarako bi aste falta direla jaso dute berria: «Aurten ate guztiak itxi dizkigute. Gure kirolarekiko ezjakintasuna erakusten du neurriak, haurrak babestu beharrean, kalte egiten ari direlako», salatu du Simarrok.

Kirola eta taldea ezagunagoak egitea dute helburu, jende gehiagok izena eman dezan. Hala azaldu du Simarrok: «Neskak eta mutilak ikasteko gogoz etortzea nahi dugu, haur bakoitzari bere onena ateratzeko». Bihar, adibidez, erakustaldi bat egingo dute Etxebarriko kiroldegian. Izan liteke inori probatzeko gogoia pizteko amua.

Vaiza Marrero joan zaie, Kanarietarik (Espainia), saio tekniko bat egitera. Harekin dago bietatik talderik helduena, «koreografia egituratu eta fintzeko» xedez.

Beroketak egin ondoren, sudurrean pintzak eta gerrian flota gailu bat jarri, eta hasi dira koreografia entseatzan, Marrerok burdinazko makila batekin erritmoa markatzen duela. Amaitutakoan, zertan huts egin duten azaltzen die, besoekin hanketako mugimendua irudikatuta. Pausoz pauso, erraztasunak kenduz doaz: flota gailua ken-




DENBORA-PASAK



1.

Ezberdintasunak. Maider eta Amets igariketa artistikoa egiten ari dira irudian, baina bi marrazkien artean zazpi ezberdintasun daude. **Ba al dakizu zeintzuk diren?**



2.

Buruari eragin. Inaki matematikaria da, baina azken aldian erabat nahastuta dabil eragiketa hauekin. **Lagunduko al diozu?**


6 ○ 8 ○ 2 = 24

7 ○ 7 ○ 6 = 43

5 ○ 6 ○ 3 = 10



Erantzunak: 2-0x8/2, 7x7-6, 5x6/3.
3-1-0, 2-0, 3-F, 4-E, 5-B eta 6-A.



1 igeriketa

A animod

2 artistikoa

B kaokipnilo

3 igerileku

C aokitsitra

4 joko

D atekiregi

5 olinpikoak

E okoj

6 domina

F ukeliregi


3.

Hitzak osatu. Ezkerreko lerroan, hitzak zuzen idatzita daude; eskuinekoan, atzekoz aurrera.

Bilatu ezkerreko hitza eskuineko hitz zerrendan.


AZOKA

'Ametsaren bila'



Olympiak gimnasta olinpikoa izan nahi du. Europako Txapelketa dela eta, Olympia eta bere lagunak Italiara joan dira. Han erronka berriak izango ditu; urduri ibiliko da, ordea, eta bere egonezinak eta erantzukizunaren zamak ez diote lagako lo egiten eta kontzentratzen. Lortuko ote du behar duen kemena biltzea, ametsengatik borrokatzeko?

Almudena Cid eta Montse Martin
Argitaletxea: **Alberdania.**



'Nesken taldea'

Marinari futbola asko gustatzen zaio, eta, baloiarekin hain da ona, oinekin margia egiten duela baitirudi. Baina mutilek patioiko futbol zelaian jokatzeara eragozten diote. Etsizear denean, Chusak, gelakide batek, bere eskubideen alde borroka dadin animatzen du, eta irtenbide bat proposatzen dio: neskek taldea osatu dute, eta dena egiteko gai direla erakutsiko dute. Kontuz, mutilak, Rosa

Parkstarrak sortu berri da!


Pasqual Alapont eta Julia Cejas
Argitaletxea: **Ibaizabal.**



'Onin eta surf txapelketa'

Jack Suzkotxima maltzurak plan bat dauka surf festa handia amesgaizto bilaka dadin. Bere helburua lortzen badu, marrazoek surflariak jango dituzte... Lehenbailehen geldiarazi behar dugu! Kortsario zahar baten eta gure lehengusu Siraren laguntzaz, agian lortuko dugu hondamena eragozte.

Ibon Martin eta Emmanuel Montiel
Argitaletxea: **Travel bug edizioak.**



'Bainua. Fermin eta Krixpin'

Elkarrekin hitz egiteko irudiak daude liburu ilustratu honetan. Irakurketa partekatuko oneek hizkuntzaren eta adimeneraren garapena sustatzen dute.

Jeanne Ashbe
Argitaletxea: **Ttartalo.**



berria

IRRIEN LAGUNAK KLUBA

m a n t a n g o r r i

Largabista

Kurriloa

'Grus-Grus'

Testua: **Oñatiko Natura Eskola.**

H egazti handi hankaluzea, ibilera dotorekoa. Metrotik gora garai, eta bi metroko hego zabaler du. 6 kg pisatzen du. Lumaje gehiena grisa du. Hegoen muturra, burua eta lepoa, berriz, beltzak ditu, eta buru goialdea gorria du, baita begiak ere. Moko luzea du, gris-berdexka.

Zer jaten du? Orojalea da, baina landare jatorriko elikagaiak jaten ditu batez ere: sustraiak, fruituak, hostoak... Askotan, gainera, soro ereinetan haziak jaten ibiltzen da. Dieta osatzeko,



● ● Kurrilo bat hezegune baten gainean hegán. IRRIEN LAGUNAK

intsektuak, anfibioak, zizareak eta armiarmak harrapatu ohi ditu.

Ugalketa. Bizitza osoa bikote berarekin egiten du. Ugaltzeko eztei dantza ederrak egiten ditu, jauzi eta erakustaldi bitxiak eta zaratatsuak. Bi arrautzetatik sarritan bakarrak egiten du aurrera. Txita bi gurasoek zainduko dute, eta 70 egun barru hegán hasiko da.

Non bizi da? Udan Eurasia iparraldean bizi da. Epeltasun bila, udazkenean igarotzen da, milaka kilometro hegaz eginaz, eta martxoan berriz buelta egiten du. Landaretza baxuko tokiak ditu gustuko, baita hezeguneak eta zingirak ere.

Migrazioa. Altu egiten du hegán, baita mendikateen gainetik ere, Pirinioen gainetik kasurako, eta migrazioan denbora aurrera-

tuz. Airearen marruskadura murrizteko, lepoa eta hankak luza-tu eta V forman jartzen dira taldean. Lehenengo, txandakatu, indartsuenak joaten dira.


Beste zenbait datu interesgarri. Beste hizkuntzetan ere, egiten duen soinuaren antzekoa du izena: «grue», frantsesez; «grou», galegoz; «grulla», gazteleraz; «gru», italieraz...

Oso zaratatsua da. Hegán doala, 10-15 segundotik behin egiten du oihu: kru, kru, kru... Soinua 4 km-tatik entzun daiteke!

Lo, berriz, hanka baten gainean eta burua hego azpian gorde-ta egiten du; batez ere ur inguruetan, hartara, etsaia hurbiltzen bada, zipriztinak entzuteko.

OÑATIKO

mattin



mattin